



Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko araudia

Eusko Alkartasuna 2018

Edukia

1. Hitzaurrea.....	2
2. I. Titulua: Printzipio orokorrak	3
3. II. Titulua: Gardentasuna eta informazioa eskuratzea	4
I. Kapituluak: Xedea eta aplikazio-eremua.....	4
II. Kapituluak: Barne-informazioa	7
III. Kapituluak: Publizitate aktiboa.....	8
IV. Kapituluak: Informazioa eskuratzeko eskubidea	11
V. Kapituluak: Datuen berrerabilera	13
VI. Kapituluak: Ebaluazioa eta jarraipena	16
4. III. Titulua: Afiliatu, jarraitzaile eta boluntarioen parte hartzeko eskubidea.....	16
5. IV. Titulua: Afiliatuen ekimenerako eskubideak.....	19
6. V. Titulua: Iradokizunetarako, erreklamazioetarako eta afiliatuen babeserako batzorde berezia.....	20
7. VI. Titulua: Araudi honen erreforma	21
8. Xedapen gehigarria	21



Hitzaurrea

Araudi honen xedea da erabakiak hartzeko parte-hartze aktiboa arautzea (estatutuek beren azken xedapenetatik bigarreanean garatutakoaren arabera), zeina ondoko printzipioekin (estatutuen bosgarren artikuluan jasota) lotuta dagoen: konstantetasuna, motibazioa, hurbiltasuna, zorrotasuna, gardentasuna, parte-hartzea, talde-lana, komunikazioa eta erabakimena. Halaber, beste zenbait printzipio sustatu nahi ditu, politika-garai modernoek dagozkienak; izan ere, parte hartzeko moduak nabarmen aldatu dira politikan. Bere eginkizun nagusia da Eusko Alkartasunaren indarreko estatutuetan (antolaketa-araudian) xedatutakoa garatzea, osatzea eta hobetzea, baita afiliazioaren ahalmena zabaltzen eta zuzentzen saiatzea ere, erabakiak hartzeko beharrezko informazioa eduki dezan.

Hitzaurrea, sei titulu eta xedapen gehigarri bat ditu araudi honek, eta bere onarpenak eta garapenak estatutuetan ezarritako arauzko bideei jarraituko diete. Araudiak aldaketak izan ditzake, indarrean sartu arte.

2017ko ekainean Donostiako kongresuan eraturako estatutuek ondokoa zehaztu zuten azken xedapenetatik bigarreanean: araudi batzuk aurkeztuko dira, onartzeko edo berrikusteko, gehienez sei hileko epean; besteak beste, *“Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko araudia”*. Araudi hau egingo da gardentasun- eta informaziorako sarbide-irizpideei jarraiki, baita Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa aintzat hartuta ere, eta, bukatutakoan eta onartutakoan, indar osoa edukiko du alderdian. 2017an Donostian egindako kongresuan onartutako estatutuen eta alderdiaren antolaketa-araudiaren garapena izango da arautegi hau; hots, haien osagarria, eta ezin izango ditu haiek urratu, bateraezintasunak edo kontraesanak eraginda.

Afiliatuen parte-hartzea funtsezko osagaia da alderdi politikoak, gizarte-erakundeak eta herri-administrazioak gobernatzeko eta kudeatzeko; hala, barne-gobernuaren jardura inspiratzen du, zeina, mailarik gorenean, Kontseilu Nazionalak eta Nazio Batzorde Eragileak gauzatzen duten, baita hierarkikoki azpitik dituzten organo guztiek ere. Militantziak hautatzen ditu Eusko Alkartasunako gobernu-organoak eta, hedaduraz, hauteskunde-zerrendak edo alderdiaren ordezkariak (parte hartzen duten koalizio-zerrendetan), pertsona independenteen eta boluntarioen parte-hartzea baztertu gabe. Militanteek dute konpromiso-mailarik handiena alderdian; horrexegatik, beren parte-hartzea ezinbestekoa da Eusko Alkartasunaren eginkizunak garatu ahal izateko.

Zalantzarik gabe, araudi honek hauxe du helburu: erabakiak hartzeko presentzia aktiboa sustatzen duen demokrazia parte-hartzailearen osagarria izatea, kultura parte-hartzailea bultzatzen duten bideak eraikitzea eta teknologia berrien erabileraren aldeko apustu argia egitea.



Era berean, elementu egituratzailea da, eta afiliatuen parte-hartzearen eta ekimenaren bitartez sustatu nahi du erabakiak hartzea. Informazioa eskuratzea eta parte-hartzea direla eta, zenbait eskubide proposatu ditu afiliatuentzat, estatutuetan eta araudietan jasoak.

Horretarako guztirako, Alkartetxeak dira Eusko Alkartasunaren afiliatuen eta gobernu-organoen arteko elkarreragin-tokiak. Hala, modu irekian erabiliko dira erabakiak hartzeko eta batzarrak zein sektore-topaketak egiteko. Orobat, elkarrekin adostuta utziko dira hauteskunde-aliantzek (hauteskunderi lotutako prozesuetan) eta kideko elkarteek erabil ditzaten, baita Eusko Alkartasunaren balioak eta ideia politikoak sustatzea eta hedatzea xede duten beste erabilera-mota batzuetarako ere.

I. Titulua: Printzipio orokorrak

1. art. - Aplikazio-eremua

Arau hauek ondokoa dute xede: afiliatuen eta jarraitzaileen, elkarten eta bestelako erakundeen komunikaziorako, informaziorako eta parte hartzerako bideak ezartzea, Eusko Alkartasunaren antolaketa-araudia eta estatutuak garatzeko.

2. art. - Jarduketa-printzipioak

Eusko Alkartasunak konpromiso hau dauka: politika etikoa benetan aplikatzea, zeinak gardentasuna sustatzen duen, eta afiliatuen, jarraitzaileen eta gizarte-taldearen parte-hartzea ere bai. Horretarako, bere egiten ditu jarduketa-printzipio hauek:

1. Afiliatuei informazioa eskuratzeko (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan jasotako arauak zainduta) eta alderdian hartu beharreko erabaki garrantzitsuenetan parte hartzeko eskubideak bermatzea.
2. Afiliatuen parte-hartzea areagotzeko bide gehiago bilatzea, batik bat baliabide elektronikoei dagokienez, hala papera inprimatzea saihesteko eta prozesu iraunkorrakoak (ikuspegi ekologikotik) topatzeko.
3. Komunitate bateko partaide izatearen kontzientzia piztea, eta erantzukizuna bultzatzen saiatzea afiliatuen erabakimenari dagokienez.
4. Berebiziko garrantzia ematea zuzendaritza-organoen eta afiliatuen arteko komunikaziorari.
5. Informazio-trukea ahalbidetzea alderdiko organoen, elkarten edota hauteskunde-aliantzen artean, elkarrengandik ikasten jarrai dezagun.
6. Parte hartzeko zailtasunen bat duten afiliatuen parte-hartzean arreta jartzea eta erraztea.



7. Genero-ikuspegia testuinguru parte-hartzaileetan txertatzeko lan egitea, eta andrazkoen parte-hartzea sustatzea erabakiak hartzeko orduan.
8. Gazte Abertzaleen rola aitortzea eta indartzea, erabakiak hartzeko orduan.
9. Kideko elkarten eta erakundeen rola aitortzea eta indartzea, hala nola, Aberringintzan-ena, Bizigay-ena eta sor litekeen edo Eusko Alkartasunaren ideia politikoetatik gertu egon litekeen beste edozeinena.
10. Gobernu-organo guztiak mobilizatzea, afiliatuek parte hartzeko barne-politikak abian jar daitezten.
11. Afiliatua izateagatik eskuratutako datu edo agiri ororen konfidentziasunari eustea, hirugarrenei dagokienez.

3. art. - Parte hartzeko eskubideak

Eskubide hauen bitartez gauzatuko da afiliatuen parte-hartzea:

1. Informazioa eskuratzeko eskubidea.
2. Parte hartzeko eskubidea.
3. Afiliatuen ekimenerako eskubidea.

II. Titulua: Gardentasuna eta informazioa eskuratzea

I. Kapituluak. Xedea eta aplikazio-eremuak

4. art. - Xedea

Titulu honen xedea da Eusko Alkartasunaren jarduera politikoaren gardentasuna ezartzeko arau batzuk zehaztea. Horretarako, beharrezko baliabideak ezarriko ditu.

5. art. - Aplikazio-eremua

Titulu honetan jasotako xedapenak hauei aplikatuko zaizkie:

- a. Alderdiko gobernu-organoei, maila guztietan.
- b. Oinarrizko afiliazioari eta jarraitzaileei.
- c. Alderdiarekin zuzeneko edo zeharkako elkarlan aktiboak dituzten elkarteei.

d. Alderdiari zerbitzuak ematen dizkion edo haren izenean funtzioak betetzen dituen edozein pertsona fisiko edota juridikori.

6. art. - Printzipio orokorrak

1. Barne-informazioaren publizitatea eta zaintza: Alderdiak bere bitartekoen bidez informatuko ditu afiliatuak, baita horretarako afiliatuek borondatez ematen dituztenen bidez ere (helbideak, telefono-zenbakiak, posta elektronikoa...).
2. Informazioaren berrerabilera: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko indarreko legean jasotakoaren arabera berrerabili ahal izango da informazioa.
3. Informazioa eskuratzea: Eusko Alkartasunak bermatuko du barne-prozesuak arautzen dituzten etapa eta mekanismoen (edo hauteskunde-garaietan egindakoen) gaineko informazioa eskuratu ahal izatea.
4. Informazioa baliabide elektronikoaren bidez eskuratzea: EAK baliabide elektronikoak ezarriko ditu informazioa, nagusiki, bitarteko horien bidez helarazteko, afiliatuek eska ditzaketen beste kanal batzuen ezarpena baztertu gabe.
5. Informazioaren kalitatea: Egiatzkoa, frogagarria, eguneratua eta osoa izango da afiliatuei aurkeztuko zaien informazioa. Informazio orotan adieraziko da zein den informazioaren sail erantzulea eta azkeneko eguneratze-data. Halaber, ulermena errazteko egitura, aurkezpena eta idazkera erabiliko da.

7. art. - Gardentasunarekin, berrerabilerarekin eta informazioa eskuratzearekin loturiko betebeharrak

1. 5. artikuluan aipatu Eusko Alkartasunako gobernu-organismoek ondokoak egingo dituzte eginbehar hauek betetzeko:
 - a. Informazio garrantzitsuena landu, eguneratu eta hedatu (nagusiki, bitarteko elektronikoaren bidez). Hala, alderdiaren jardueraren gardentasuna bermatu, informazioaren berrerabilera ahalbidetu eta hura eskuratzea erraztuko da.
 - b. Kontsulta-bide egokiak ezarri eta horiei eutsi, eskatutako informazioa topatzea eta hedatzea errazteko.
 - c. Eskatutako informazioa epe barruan eta modu egokian helarazi.

2. Araudi honetan jasotako betebeharrak ez dute bestelako xedapen zehatzen aplikazioa baztertzen (parte-hartzearen arloan araubide zabalagoa ezartzen dutenak).

8. art. - Afiliatuen eskubideak

1. Araudi honetan zehaztutakoaren arabera, hauek dira afiliatuen eskubideak:
 - a. Barne-prozesuen gaineko informazioa jaso.
 - b. Informazioa modu pertsonalizatuan eskuratu, afiliatuaren ordutegi- eta egutegi-beharren arabera, baina alderdiko langileen lan-eskubideak errespetatuta.
 - c. Informazioa bilatzeko garaian, laguntza jaso.
 - d. Aholku egokiak eta ulergarriak jaso.
 - e. Eskatutako informazioa epe barruan eta formatu edo modu egokian jaso.
2. Eusko Alkartasuna ez da izango afiliatuen edo hirugarren pertsona fisiko edo juridikoen informazio-erabileraren erantzule.

9. art. – Informazioa eskuratzeko bitartekoak

1. Araudi honen aplikazio-eremu barruko erakundeek eta pertsonak Eusko Alkartasunak bere jarduera politikoaren baitan garatzen dituen barne- eta kanpo-prozesuetarako beharrezko informazioa emango dute.
2. EAko organo exekutiboek hurrengo bideetako bat erabiliz emango diete informazioa afiliatuei:
 - a. Ahal den heinean, eskatzailearengandik hurbilen edo errazen iristeko moduan dauden lurralde- edo nazio-bulegoetan nahiz Alkartetxeetan.
 - b. Web-orri, sare sozial eta bitarteko telematikoen bidez.
 - c. Telefono-arretarako zerbitzuaren bidez.
 - d. Bestelakoak (batzarrak, sektore-bilerak eta Eusko Alkartasunaren estatutuetan zein antolaketa-araudian jasotako bide guztiak).

10. art. - Unitate erantzulea



Alderdiko organo exekutiboek, estatutueta eta antolaketa-araudian ezarritako funtzioak betetzeko, unitate erantzuleak izendatuko dituzte administrazio-, antolaketa-, finantza- eta komunikazio-egitura orokorrean, zeinak funtzio hauek beteko dituzten barne-prozesuetan eta hirugarrenekin garatu beharrekoetan:

- a) Afiliatuen informazio-eskaerak jaso eta izapidetu.
- b) Beharrezko barne-izapideak egin.
- c) Eskarien izapidetze zuzenaren jarraipena eta zaintza egin.
- d) Eskarien erregistroa izan.
- e) Informazioa euskarri elektronikoetan eskuragarri dagoela ziurtatu.
- f) Aktibo eduki eskura dauden informazio-moten katalogo elektronikoa.

II. Kapituluak. Barne-informazioa

11. art. - Informazioa

Hauxe joko da barne-informaziotzat: xedea eta euskarria edozein dela ere, titulu hau aplikatu beharreko esparruko subjektuek dauzkaten edukiak edo agiriak, baldin eta beren eginkizunen jardunean eginda edo lortuta badaude.

12. art. - Mugak

Araudi honen mugak ezarri dira gardentasun-irizpideen, informazioa eskuratzeko irizpideen eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.

13. art. - Datuen babesa

1. Barne-informazio orenen erabilera (araudi honetan ezarritako mekanismoen bidez) egingo da norberaren datuen babesetik eratorritako eskubideak erabat beteta, eta arlo horretako berariazko legerian araututakoari jarraiki.
2. Identifikazio-datutzat hartuko dira antolaketari, funtzionamenduari edo barne-jarduerari lotutakoak; hau da, barne-kudeaketarako organoetan lan egiten duten pertsona fisikoen datuak: izen-abizenak, karguak edo betebeharrak, posta elektronikoa eta laneko telefono-eta fax-zenbakiak.

III. Kapituluua. Publizitate aktiboa

14. art. - Publizitate aktiboaren xedea

1. 5.1. artikuluan jasotako subjektuek beren ekimenez argitaratuko dute ondoko barne-informazioa: beren jardueraren gardentasuna eta 18. artikulutik 24.era bitartean zehazturiko edukien informazio-berrerabilera bermatzeko ezagutu beharrekoa.
2. Halaber, barne-zabalkundea izango dute informazioa eskuratzea ukatzen edo mugatzen duten ebazpenak, interesdunei jakinarazi ostean, eta datu pertsonalak aurrez ezabatuta.

15. art. - Argitaratzeko tokia

1. Xede horrekin ezarritako web-orrialdean edo sare sozialetan argitaratuko da informazioa.
2. Hirugarrenak barne hartzen dituzten prozesuei buruzko informazioa eskuratzeko beharrezko loturak izango dituzte web-orrialdeak edo sare sozial ofizialek.

16. art. - Argitaratzeko modua

1. Informazioa modu argian eta egituratuan argitaratuko da, hizkuntza ulergarria erabilia. Informazioaren izaera edo edukia dela-eta baliatutako hizkuntza teknikoak ulermena zailtzen badu, argitaratzeko beste bertsio berariazko eta errazagoa prestatuko da.
2. Barne-zabalkunderako informazioa osorik emango da, eta informazioaren jatorria, eguneratze-maiztasuna eta azken eguneratze-data adieraziko dira.

17. Art.: Argitaratze- eta eguneratze-epeak

1. Informazio eguneratua emango da, baina prozesu bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.
2. Informazioa eskuratu ahal izango da jarduketa-epeak indarrean dauden bitartean eta dagozkion prozesuak bukatu arte. Barne- eta kanpo-karguen gaineko informazioa ere argitaratuta egongo da, Eusko Alkartasunaren izenean betebeharrorietan jarduten duten bitartean.
3. Informazioa ahalik eta epe laburrenean eguneratu beharko da, informazioaren ezaugarriak eta baliabide teknikoak nahiz eskuragarriak kontuan hartuta beti.

18. art. - 5. artikulua aplikatu beharreko esparruko subjektuei buruzko informazioa

Ondorengoekin lotutako informazioa argitaratuko dute 5. artikuluan aipatu subjektuek:

- a. Betetzen dituzten eskumen eta eginkizunekin.
- b. Erakunde-egiturarekin (ordaindua eta ordaindu gabea).
- c. Administrazio-egiturarekin.
- d. Plan, lan eta agiri estrategikoekin.
- e. Urteko eta urte anitzeko programekin, helburu zehatzak, ekintzak, bitartekoak eta horiek lortzeko aurreikusitako denbora adierazita.
- f. Lanpostuen zerrendarekin.
- g. Lanpostuei begirako aurreikusitako hautapen-prozesuekin.

19. art. - Goi-karguen eta erakundeetan erantzukizunik handiena duten pertsonen gaineko informazioa

Behinik behin, informazio hau zabalduko da barne-mailan:

1. Karguari lotutako jardunagatik jasotako ordainsariak.
2. Jasotako kalte-ordainak.
3. Kargua uzteko arrazoiekin lotutako ebazpenak.
4. Borondatezko bestelako informazioak, izendatua izan aurretik sektore pribatuan jasotako nominak, esaterako.

20. art. - Ondare-garrantziko informazioa

1. Indarrean dagoen gardentasun-legean adierazitako baldintzen baitako informazioak argitaratuko dituzte kargu publikoek.
2. Barne-karguek informazio oro emango dute argitara alderdiaren ondareari edo urteroko kontuen benetako aplikazioari dagokionez tartean direnean.
3. Beren jardueran Eusko Alkartasunari zerbitzuak ematen dizkioten merkataritza-sozietateetan dituzten kapital akzioak edo partaidetzak.

21. art. - Kontratazioari, hitzarmenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa

Ondorengoekin lotutako informazioa jakinaraziko dute 5. artikuluan aipatu subjektuek:

1. Eusko Alkartasunarekin eta erakunde kideekin (Gazte Abertzaleak, Alkartasuna Fundazioa) izenpetutako hitzarmenekin.
2. Eusko Alkartasunak bere ardura egikaritzeko egiten dituen kudeaketa-aginduekin.
3. Eusko Alkartasunaren eskutik jasotako kopuruekin, zenbatekoa, xedea eta onuradunak adierazita.
4. Barne-prozesuei edo kanpaina instituzionalei dagokien informazioarekin, baita Eusko Alkartasunak parte hartzen duen aliantza aktiboetako erakundeekin egindako prozesuei buruzko informazioarekin ere.

22. art. - Ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-informazioa

Hurrengoei buruzko informazioa jakinaraziko dute 5. 1. artikuluan aipatu erakundeek:

1. Urteko aurrekontuei eta beren urteko egikaritzeari buruzkoa.
2. Aurrekontu-aldaketei buruzkoa.
3. Aurrekontuen likidazioari buruzkoa.
4. Eman beharreko urteko kontuei eta kanpo-ikuskapenen gaineko txostenei buruzkoa.
5. Kargu publikoetako eta antolaketa-egiturako barne-karguetako langileen soldata-masari buruzkoa.

23. art. - Barne- eta kanpo-prozeduren gaineko informazioa

Ondokoen gaineko informazioa jakinaraziko dute 5. 1. artikuluan aipatu erakundeek:

1. Antolaketa-araudian adierazitako barne-prozesuen gainekoa.
2. Kargu publikoak betetzearekin lotutako kanpo-prozesuen gainekoa.
3. Alkartetxeen eta egoitzen ondare- eta erabilera-egoeraren gainekoa.
4. Administrazio-prozeduren kudeaketari buruzko protokoloen gainekoa.

IV. Kapituluak. Informazioa eskuratzeko eskubidea

24. art. - Eskubidearen titulartasuna

Afiliatu oro da eskubide horren jabe.

25. art. - Eskubidearen mugak

Lehenengo atala: araubide juridikoa

1. Kasu hauetan baino ez da ukatuko informazioa: alderdirako kaltegarria dela egiaztatuta geratzen denean (aurretiko Nazio Batzorde Eragilearen edo bermeen auzitegiaren ebazpen arrazoitu eta egokiaren bidez) edo jurisprudentziak zein datuen babeserako legeak berak berariaz zehazten dutenean.
2. Aurrekoaren arabera informazioa ukatu egingo balitz, aurretik informazioaren zati bat emateko aukera aztertuko da, dagokion mugak eragindako informazioa ezabatuta. Halaxe denean, mugek eragindako informazioa gorde egingo dela bermatuko da, gordeta dagoela eta halaxe jarraituko duela ohartarazita.

Bigarren atala: Prozedura

26. art. - Eskumena

1. Eusko Alkartasunak barne-informazioa eskuratzeko eskaerak ebazteko organo eskudunari buruzko informazio nahikoa emango du.
2. Informazioa ez baldin badago Eusko Alkartasunaren eskura, haren jabearengana bideratuko da eskatzailea.
3. Eskaturiko barne-informazioa pertsona fisikoei eskatu behar zaienean, Eusko Alkartasunako dagokion erakundeak ebatziko du kasua, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko Lege Organikoaren arabera, beti hierarkia-printzipioa gailenduta.

27. art. - Eskaera

1. Eskaerak ebatzi eta jakinarazi ahal izateko beharrezko nortasun-datuak bakarrik eskatuko dizkio eskatzaileari informazio-eskaerak ebazteko arloak. Halaber, eskatutako informazioa antzemate aldera, beharrezko laguntza eta aholkularitza emango dizkio eskatzaileari.
2. Eskatzaileari barne-prozedura ebazteko eta jakinarazteko ezarritako gehieneko epearen berri emango zaio.

28. art. - Gaitzespena

Eskaeren izapidetzea kasu hauetan gaitzetsiko da (ebazpen arrazoitu bidez):

1. Uneko hauteskunde-prozesuak oztopa ditzaketenean.
2. Ondare-prozesuak edo bestelako finantzaketa-bideen bilaketa oztopa ditzaketenean.
3. Bukatu gabe dauden testu edo prozesuen uneko informazioari buruzkoak direnean. Kasu honetan, ezarritako epeak jakinaraziko dira.
4. Prozesu nagusiaren informazio osagarria direnean, ez oinarritzkoa.
5. Arlo edo erakunde eskuduna ezezaguna denean.
6. Nabarmen errepikakorrak direnean edo araudi honen parte-hartze eta gardentasun xedeari dagokionez gehiegizkoak direnean, inolako justifikaziorik gabe.
7. Estatutuak, antolaketa-araudia edo, oro har, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko Lege Organikoa urratzen dutenean.

29. art. – Informazioa ematea

Informazioa emango da konplexutasunaren arabera, eta beti hilabeteko epean, dagokion sailak prozesua edo azpiprozesua benetan hasten duenetik aurrera, prozesuan bertan epeak aldeztu aurretik ezarrita egon ezean.

Prozesuan hirugarrenek aurkakotasuna agertu balute, edo Nazio Batzorde Eragileari edo bermeen auzitegiari eskaerak egin balitzaizkio, informazioa emango da organo horien ebazpen idatzia dagoenean, bai eta auzitegietan helegitea ezarrita dagoenean ere.

V. Kapituluak. Datuen berrerabilera

30. art. - Berrerabileratik kanpoko agiriak eta eskuratzeko mugak

1. Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko Lege Organikoaren, gaiari buruzko jurisprudentiaren eta arloko beste edozein mugaren mendeko datu pertsonalak. Izaera pertsonaleko datuak soilik erabili ahal izango dira baldin eta interesdunaren esanbidezko adostasun idatzia edo grabaketa bidezko ahozko adostasun frogagarria badago.
2. Kargu publikoei zein barnekoei edo afiliatutako pertsonen eragiten dieten agiriak. Era berean, estatistika-sekretuaren eta merkataritzako konfidentzialtasunaren baitakoak, eta, oro har, erreserbari, sekretuari edo konfidentzialtasunari lotutakoak ere bai.

3. Alderdiaren interes orokorreki kalte egiten dieten agiriak, eta Nazio Batzorde Eragileko gehiengoak berretsitakoak.
4. Balio historikoa edo kulturala duten agiriak.
5. Jabetza intelektualaren eskubideen eta eskubide eskusiboen mendeko agiriak.

31. art. - Irizpide orokorrak

Oro har, Batzarrean onartutako edo eskura jarritako informazio oro eskuratu eta berrerabili ahal izango da aurretiko baimenen beharrik gabe, informazioan bertan espresuki kontrakoa adierazi ezean. Hala izanez gero, idazlearen esanbidezko adostasuna beharko da informazioa zabaltzeko. Orobat, informazio ekonomikoa alde batera utziko, zeinak antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikako arloaren esanbidezko adostasuna beharko duen.

32. art. - Berrerabilera-baldintzak

Hurrengo baldintzak bete beharko dituzte afiliatuek informazioa berrerabiltzean:

- a. Edukia ezin izango da inoiz aldatu.
- b. Informazioaren iturri den arloa aipatu beharko da beti.
- c. Informazioaren kalitatea bermatzen duten osagaiei eutsi beharko zaie.

33. art. - Berrerabilera-eraren eskusibotasuna

1. Gardena izango da, eta afiliatuei berrerabilera-eskusibide eskusiboak eskaintzen dituen akordio oro jakinaraziko zaie.
2. Debekatuta daude informazioaren berrerabilera-eraren arloko akordio eskusiboak. Agiriak gordetzen dituzten indarreko kontratu edo akordioek eta hirugarrenek ez dute eskusibide eskusiborik eskainiko, espresuki kontrakoa adierazi ezean.

34. art. - Informazioaren berrerabilera-motak

1. Aurretiko eskaerarik gabeko eta baldintza zehatzen mendeko berariazko loturarik gabeko berrerabilera. Erabiltzeko baldintza orokorrak:
 - a. Ezin da edukia aldatu.
 - b. Ezin da informazioaren zentzua desitxuratu.
 - c. Iturria aipatu behar da.

- d. Azkeneko eguneratze-data aipatu behar da.
2. Baliatze mugatuko berrerabilera edo aurretiko baimena behar duena. Esanbidezko adostasuna eta eskaera arrazoitua behar du estatutuetan edo antolaketa-araudian jasotako eginkizun jakin batzuk gauzatze aldera.

35. art. - Informazio berrerabilgarriaren argitalpena

1. Informazioaren edukia, izaera, egitura eta eguneratze-maiztasuna jasoko ditu, baliabide elektronikoen bidez eskuratu ahal izango da, eta jatorrizko arloari lotuta egongo da.
2. Ahalegina egingo da informazio berrerabilgarri oro formatu elebidunean eta genero-ikuspegia aintzat hartuta idatzia egon dadin.
3. Informazioa berrerabilera ahalbidetzen duten formatuetan argitara dadin bultzatuko da.

36. art. - Berrerabilera-eskaerak izapidetzeko prozedura

1. Batzarrean onartu eta, gutxienez, hamar egun igaro beharko dira berrerabiltzeko informazioaren eskaera egiteko.
2. Dagokion batzarrak onartu gabeko informazioaren kasuan, batzar hori egin aurreko zazpi eguneko epean, gutxienez, izapidetuko da.
3. Informazioa eta bere berrerabilera aldi berean eskatzen badira, batera izapidetuko da dagokion arloaren bitartez.
4. Ebazteko eta jakinarazteko 15 eguneko epean esanbidezko ebazpenik egon ezean, eskatzaileak gaitzetsizat jo beharko du eskaera, eta hurrengo organo exekutibora (mailaren arabera) jotzeko aukera izango du. Azken buruan, bermeen auzitegiak edota justiziak ebatziko dute erreklamazioa.

37. art. - Arau-hausteak

1. Arau-hauste oso larritzat joko dira:
 - a. Informazioa desitxuratzea.
 - b. Edukia aldatzea, informazioaren zati bat besterik ez errepikatze izan ezean.
 - c. Ezarritako bestelako baldintzen ez-betetze larria.



2. Arau-hauste larritzat joko dira:
 - a. Informazioa esanbidezko adostasunik gabe berrerabiltzea.
 - b. Informazioa beste xede baterako berrerabiltzea (ez emandako horretarako).
 - c. Ezarritako bestelako baldintzen ez-betetze arina.
3. Arau-hauste arintzat joko dira:
 - a. Informazioaren data ez aipatzea.
 - b. Iturriaren edo arloaren aipamenik ez egitea.

38. art. - Diziplina-araubidea

Beharrezkoa baderitzo, Nazio Batzorde Eragileak espediente bati hasiera emanez zigortuko du gardentasunaren eta informazioa eskuratzearen arloko araudi honen xedapenak urratzea.

VI. Kapituluak. Ebaluazioa eta jarraipena

39. art. - Organo arduraduna

Arlo edo azpiarlotako bakoitza arduratuko da bere informazioaren jarraipenaz eta zaintzaz.

4. III. Titulua: Afiliatu, jarraitzaile eta boluntarioen parte hartzeko eskubidea

40. art. - Eusko Alkartasunaren datu-basea

EAKo afiliatuen eta jarraitzaileen datuak kudeatzeko tresna da; izan ere, datu horiek beharrezkoak dira pertsona horiek alderdiaren erabakietan parte har dezaten, estatutuetan jasotako eskubide eta betebeharren arabera. Datuak pribatuak dira, eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko Lege Organikoaren (LOPD, gaztelaniazko siglak) baitan daude, baita alderdiaren antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikako arlo nazionalak lege horren arabera egiten duen kudeaketaren baitan ere. Nazio Batzorde Eragilearen esku egongo da datu-basea.

Tokiko erakundeek urtero (gutxienez) eguneratuko dute, eta alderdiaren antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikako arloari aurkeztuko dizkiote berritutako datuak. Alderdiko afiliatuekin posta elektronikoa, telefono edo posta bidez harremanetan jartzeko beharrezko datuak jasoko ditu, eta ahalegina egingo da afiliazio-fitxa guztietan militantearen NA ager dadin, batik bat afiliatu berrien kasuan. Antolaketa-araudi eguneratuan egongo dira zehaztuta onarpen-baldintzak; militanteen eskubideak eta betebeharrak, berriz, estatutuetan eta antolaketa-araudian.

41. art. - Afiliatuen parte-hartzea gobernu-organoetan

Afiliatu orok du eskubidea bere izenean gobernu-organoen zaintzarekiko gaietan parte hartzeko (edo gobernu-organoetan parte hartzeko eskubidea, aukeratuak izango balira), baldin eta urteko kuota ordaindu badute edo arazko salbuespenerako arrazoia modu frogagarrian egiaztatzen badute. Parte-hartzea borondatezkoa izango da, eta ez da murrizketei lotuta egongo (antolaketa-araudian jasotakoei izan ezik) tokiko, eskualdeko eta lurraldeko batzarretan, baita hautatuak izan litezkeen horietan ere.

Afiliatuek batzorde hauetako partaide izateko eskubidea dute: EAK abian jartzea erabakiko lituzkenak, eta hauteskunde-aliantez bidez hauteskunde-prozesuetarako edo herrialdearen egoeraren sektore-azterketarako sortuak.

Hauek izan daitezke Eusko Alkartasunako militanteak: oinarritzko afiliatuak, kargu publikoak, barne-karguak, hauteskunde-aliantezako militanteak, kontratatutako langileak, boluntarioak, sektore-zetabaidetako parte-hartzaileak, 2.0 militanteak, LAN TALDE 2.0 eta kideko elkartekideak edo denborak eta jarduera politikoak ezarritako bestelakoetako kideak. Online-militantzia egikaritzeko moduak estatuetan aitortutako eskubide eta betebeharren mende egongo dira, eta aktibo egongo dira EAK haiek garatzeko beharrezko mekanismoak abiatzen dituen unetik aurrera.

Eusko Alkartasunak bere kabuz edo hauteskunde-aliantez bitartez aukeratutako kargu publikoek konpromisoa hartzen dute, agiri honen bidez, nor bere militanteekin era parte-hartzaileen eta proaktiboan lan egiteko, bereziki garrantzi handiko erabakietan, esaterako: aurrekontuen onarpenean, barne-aholkularitzan eta ustelkeriarekin loturiko gai guztietan.

42. art. - Jarraitzaile eta boluntarioak

EAK bere estatutuetan eta antolaketa-araudian du aitortua jarraitzailea, haren eskubideak eta betebeharrak barne.

Araudi honek barne hartzen ditu zenbait prozesutan (hauteskundeetan, adibidez) Eusko Alkartasunaren aldeko boluntarioritza-lanak egiten dituzten boluntarioak, nahiz eta oraindik izena eman gabe egon jarraitzaileen erregistroan. EAK bere egiten ditu Eusko Jaurlaritzak bere legetan eta araudietan boluntarioentzat ezarritako eskubideak eta betebeharrak, eta haien lana solidarioritza jotzen

du. Eusko Alkartasunak ahalegina egingo du dagokion arloan lana eta ekarpenak egiteko prest dauden boluntario-taldeak sortzeko (alderdiaren sektore-arloen inguruan), gizarte-ehunean masa kritikoa eta mobilizatzeko joera izango duena era dadin.

Halaber, Eusko Alkartasunak bere egingo du elkartegintzaren sustapena, eta alderdiaren jardura politikotik hurbil dauden edo horren osagarri diren erakundeekin lankidetzak aktiboak bultzatzen ahaleginduko da.

43. art. - Eusko Alkartasunako organoetan parte hartzeko moduak

Hauek dira nazio-mailako organo parte-hartzaileak: Kongresu Nazionala, Batzar Nazionala, Kontseilu Nazionala, Idazkaritza Nagusia, Nazio Batzorde Eragilea, Bermeen Batzordea, zaintza-organoak eta urteko biltzar politikoa. Koordinazio-batzordeak eta lurralde-batzarrak lurralde-organoak dira, eta tokiko batzarrak eta exekutibak, lurralde-batzarrak eta lurralde-batzordeak, berriz, tokiko organoak.

Antolaketa-araudian eta araudi honetan xedatutakoaren arabera, batzar irekien eta hauteskunde-egunen (ordutegi batekin) bitartez egingo da nazio- eta lurralde-ordezkaritza organoetarako afiliatuen hautaketa. Tokiko erakundeek eta lurralde-erakundeek beren kideen artean aukeratuko dituzte ordezkariek, ohiko batzarren bidez (irekiera- eta itxiera-ordutegiarekin).

Hautagai-zerrenden bozketa egin baino lehen aurkeztu ahal izango dituzte hautagaiek beren ideiak eta programak. Hautagaiek ondokoak aurkeztu ahal izango dituzte beren programetan: alderdiaren etika-kodean nahiz Eusko Alkartasunak kongresuetan onartutako txostenetan jasotako konpromiso politikoak, etikoak, moralak eta filosofikoak garatzen dituen edozein ideia. Hautagai-zerrenda bat baino gehiago badago, ahaldunak izateko aukera izango dute, hauteskunde-egunetako edo batzar irekietako zaintza-eginkizunak bete ditzaten. Afiliazio-kuota ordainduta eduki beharko dute horietara bertaratutako afiliatuek, eta izenpetze-kontrolerako orrian sinatu beharko dute bozketa egin aurretik (antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikako arloaren esku jarriko da orria egunaren amaieran).

Ondorengoek eraenduko dituzte modu proportzionalan osoko bilkurak eta batzarrak: parte-hartze printzipioak, informazioaren zaintzak (erabakiak hartzean) eta epe zein modu egokietan hartutako erabakien argitalpenak.

Tokiko, eskualdeko eta lurraldeko batzarrak irekiak izango dira afiliatu ororentzat. Nazio Batzorde Eragileak dagokion espedientea hasi ondoren zigortu ahal izango dira araudi honetan azaldutako parte-hartzeko eta erabakiak hartzeko printzipioak urratzen dituzten pertsonak. Agintaldia betetzen saiatuko dira ordezkaritzarako hautatutako kideak, ezohiko egoera pertsonalik edo norberaren erantzukizuna egikaritzean ageri-ageriko ez-betetzirik izan ezean.

Kideak hautatzerakoan aintzat hartuko dira araudietan eta estatutuetan azaldutako genero-berdintasun, gaztetasun eta euskara-maila irizpideak. Gutxiengoaren eskubideekiko begirunea lehenetsiko da beti, eta gutxiengo horien pluraltasuna eta parte-hartzea bermatzeko ahalegina egingo da.

44. art. - Eusko Alkartasuna partaide den hauteskunde-aliantzetan parte hartzeko moduak

Eusko Alkartasunak parte hartuko du bere sortze-helburuak betetzeko beharrezko erabaki politikoaren gainean eragiteko ahalmena hobetzen duten hauteskunde-aliantza estrategikoetan.

Hori lortze aldera, Eusko Alkartasunak alderdiko afiliatuaren parte-hartzea bultzatuko du horietan guztietan (gaitzespen frogagarri, erabateko eta indibidualik izan ezean), eta, horretarako, eskura dituen posta- eta telefono-baliabideak zein bitarteko telematikoak erabiliko ditu.

Afiliatuaren eskubide eta betebeharren artean, Eusko Alkartasunaren balioak sustatzen saiatzea dago, alderdiak osatzen dituen aliantza estrategikoetan, batez ere Eusko Alkartasunaren babesean dagokien batzarren agindupean aukeratuak izandako barne-kargu eta kargu publikoaren kasuan.

Eginkizunen arabera hierarkizaturiko egitura batez hornitu du Eusko Alkartasunak bere burua. Hortik datoz, hain zuzen, alde guztiak alderdiaren balioak modu hierarkikoan, arautuan eta legezotasun-printzipioa aintzat hartuta babestera behartzen dituzten erabakiak. Egitura hori ez ezagutzeak ez ditu afiliatuak hura bete behar izatetik salbuesten, Eusko Alkartasunak bere legezko ordezkarien bitartez hirugarrenekin sinatutako akordioak barne hartuta.

5. IV. Titulua: Afiliatuaren ekimenerako eskubideak

45. art. - Afiliatuaren ekimenerako eskubideak

Ekimenak aurkezteko eskubidea dute afiliatuak, estatutuetan eta antolaketa-araudian xedaturiko parametroen arabera, baldin eta sufragio aktiborako eskubidea badute. Oro har, prozesu hauek arautuko dira:

- a. Afiliatuaren ekimenerako eskubidea.
- b. Afiliatuari galdeketak egiteko proposamenak.

Afiliatuak gai edo proposamenak proposatu ahal izango dituzte eztabaidatzeko, baldin eta alderdiaren kongresu-txostenak aurkaratzen ez badituzte, eta ondoko babesa, behintzat, lortzen badute: batzarkideen % 10ena toki-mailako gaietarako, % 20rena lurralde-mailako gaietarako eta % 25ena nazio-mailako gaietarako. Proposamenak dagokion batzarrean eztabaidatu behar dira, baina, horretarako,

batzar-mahaiari hamabost egun lehenago, gutxienez, helarazi beharko zaizkio, hemen xedaturiko arau guztiak beteta. Sektore-gaiak direnean, nazio-mailako idazkariek aurrez bermatu beharko dute prozesu oro. Eusko Alkartasunako afiliatuei zuzenean eragiten dieten gaiak dagokienez, beren baimen frogagarria izan beharko dute, ahoz (grabatuta) edo idatziz, babesak jasotzen hasi aurretik.

46. art. - Afiliatuei begirako galdeketak

Nazio-esparrura mugatuta daude afiliatuei begirako galdeketak, Nazio Batzorde Eragilearen aurretiko akordioa behar dute, eta afiliatuentzat interes berezia duten gaiak buruzkoak izan behar dira. Ezin izango da ekonomia- eta finantza-arloko gaiak buruzko galdeketarik egin.

47. art. - Ikerketak eta iritzi-inkestak afiliatuen artean

Antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikoko arloak (komunikazio-arloarekin elkarlanean) ahalmena du afiliatuen artean ikerketak eta iritzi-inkestak egiteko.

6. V. Titulua: *Irakokizunetarako, erreklamazioetarako eta afiliatuen babeserako batzorde berezia*

48. art. - Irakokizunetarako, erreklamazioetarako eta afiliatuen babeserako batzorde berezia

Hauexek osatzen dute: antolaketa, finantza eta hauteskunde-mekanikoko idazkaritzak, bermeen auzitegiko eta alderdiko bozeramailetzako kide banak, eta dagokion lurralde-koordinatzaileak (irakokizuna edota erreklamazioa aurkeztutako tokiaren arabera). Irakokizuna edota erreklamazioa aurkeztu zaion organo exekutiboaren hurrengo urratsa izango da, eta bermeen auzitegira jo aurrekoa, zeina arazoa ebazten saiatuko den.

Organo honen xedea da afiliatuen eskubideak babestea, eta, eginkizun horretan, Eusko Alkartasunako kideko legelarien laguntza izan dezake, ebazpenak idazteko orduan. Alderdiko organo guztiek nahitaez lagundu behar diote batzorde honi. Batzorde honen xedea da iristen zaizkion irakokizunak eta erreklamazioak ebaztea, Nazio Batzorde Eragilean eztabaidatu ondoren, haien egileak edo Batzordeak berak eskatuta. Eskaera modu frogagarrian jaso eta hilabete balioduneko epea izango du batzordeak afiliatuengandik edota Nazio Batzorde Eragiletik etorritako irakokizunei eta erreklamazioei erantzuteko. Batzordearen akordioak bermeen auzitegiaren aurrean baino ezin dira erreklamatu, batzordeak ebazpena argitaratu eta hurrengo hamabost egunean.

Gatazka larrien kasuan, bitartekaritza-lanetarako organo izenda dezake Nazio Batzorde Eragileak.

7. VI. Titulua: Araudi honen erreforma

49. art. - Erreforma-proposamena

1. Hauei dagokie araudi honen erreforma (estatuetan jasotakoaren arabera):
 - a. Batzar Nazionalari, eskubide osoko kideen gehiengo soilak hala erabakitzen duenean.
 - b. Nazio Batzorde Eragileari.
 - c. Alderdiko afiliatuen % 15i.
2. Erreforma izapidetzen hasiko da onartzea edo indargabetzea proposatzen den testuaren aurkezpenarekin.

50. art. - Zuzenketak aurkezteko eskubidea

Zuzenketak aurkezteko eskubidea dute:

- a. Batzar Nazionalako kide orok.
- b. Toki- edo eskualde-mailako erakundeek, gehiengo soilak onartutako proposamenaren bitartez.
- c. Nazio Batzorde Eragileak.

51. art. - Onarpena

Gehiengo soilak onartuko du araudi honen erreforma partziala edo osoa.

8. Xedapen gehigarria

Araudi honek aipatu prozedura telematikoen izapidetzetik eratorritako barne-harremanak gauzatu ahal izango dira horretarako beharrezko gailu teknologikoak osaturik daudenean, dagokion araudian ezarritako segurtasun- eta konfidentziasun-bermeak ziurtatuta. Behin onartuta, Eusko Alkartasunak zabalkunderik handiena emango dio araudi honi, zeina Batzar Nazionalak onartu bezain laster sartuko den indarrean.